

BAOean 2019-10-18an argitaratuta

Bermeoko Udaleko ezkontza zibilak arautzen dauzen ordenantza

Bermeoko Udalak 2019ko uztailaren 30ean izandako Osoko Bilkurak Bermeoko Udaleko ezkontza zibilak arautzen dauzen ordenantza hasieraz onartu eban, 2019ko abuztuaren 12an BAOan argitaratu eta jagokon epea igarota, alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onartuta gelditzen da, ondoren adierazoten dan moduan:

EZKONTZA ZIBILAK ARAUTZEN DAUZEN
ORDENANTZA
ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua, Bake Epailearen delegazioz Bermeoko Udalean enkontza zibilak burutzeko izapidetza arautzea da, legediarekin bat eta, ahalmenezko gaitan, Bermeoko Udalak erabaki dezakeena zehaztuta geratu dadin, efikazia, proportzionaltasun eta efizientzia printzipioak errespetatuta.

1. artikulua. Ordenantzaren xedea

Ordenantza honen xedea Bermeoko Udalean ezkontza zibilak burutzeko izapidetza arautzea da.

2. artikulua. Ezkontza egiteko lekua

Ezkontzak udaletxeko areto nagusian edo udalbatzaren aretoan egingo dira, edo, bestela, ezkontzetarako espreski prestatutako lokalaren batean. Udalak begirune eta funtzionalitate baldintza oneko leku egokia eta duina gordeko du ekitaldia egiteko. Udaletxeko areto nagusiaz gain beste lokalen bat izendatzea egoki ikusiko balitz, Osoko Bilkuraren erabaki bidez onartuko da.

Alkateak edo hark eskuordetza eman dion zinegotziari dagokoio udalean ezkontza zibilak egiteko eskumena.

3.-Artikulua. Ezkontzak egiteko egutegia eta ordutegia

Egunak: urte osoko asteartetik zapatara, ondorengo jaiak

kenduta:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16- 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 15 18
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

- Urtarrilaren 1ean urte berri eguna eta 6an errege eguna
- Otsailaren 2an Kandelaria eguna Demiku auzoan
- Martxoaren 1ean, Guardako Aingerua Almike auzoan eta 8an Emakumeen Nazioarteko eguna
- Aste santuko osteguna, ostirala, larunbata, igandea eta astelehena
- Maiatzaren 1ean, langileen eguna
- Maiatzean, Arrain Azokako asteburuan.
- Ekainaren 24an Doniene eguna Arene auzoan eta 29an San Pedro eguna
- Uztailaren 16an Karmengo Ama Birjina Mañu auzoan, eta 22an Madalen eguna
- Abuztuaren 15ean, Ama Birjina eguna, 16an San Roke eguna eta 29an San Juan Degollatuaren eguna
- Irailaren 8, 9 eta 16, jai patronalak eta 29an Mikel Deuna auzoan



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16- 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 15 18
 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Ordutegia: goizez 11:00etatik a 14:00etara eta arratsalde 17:00etatik 20:00etara

4.-artikulua. Tasa ordaintzea

Ezkontza zibilak alkateak edo zinegotziek egiteagatik, Tasa bat ordaindu beharko da ezkontza egin aurretik, dagokion ordenantza fiskalean finkatzen dena.

Ondorio horietarako, ezkontza zibila egiteko eskaerarekin batera, alkateak edo zinegotziek ezkontza egiteagatik tasa ordaindu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da, hain zuzen, ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantzan ezarritakoa.

5.-artikulua. Eskaerak izapidetzea

Ezkontza zibila egiteko eskaerak Bermeoko Udaleko sarrera erregistroan edo egoitza elektronikoa aurkeztu beharko dira, udalak horretarako daukan eskaera normalizatutako inprimakian, gutxienez ezkontza zibila ospatu nahi dan eguna baino hilabete arinago.

Interesdun bikoteak eta, halakorik badago, bere ordezkari den pertsonaren izen- abizenak, helbidea eta identifikazioa, bai eta jakinarazpenetarako lehentasunez erabili nahi den hizkuntza eta bidea, postaz, e.maikez eta abar.

Eskaera ordezkariak aurkezten badu, gertakari hori egiaztatu egin beharko da legediak onartutako den edozein modutan, edo ordeztua bera agertuta eta hala aitortuta. Baldintza hori bete ezean, ez da eskaerarik onartuko.

Inprimakian hauek jaso beharko dira:

Ezkontideen izen-abizenak, helbidea, telefono edo emaila, eta identifikazioa (NANaren fotokopia edo baliokidea)

Bi lekuko adindunen izen-abizenak eta identifikazioa (NANaren edo baliokidearen fotokopia).

Eskatzaileen sinadura edo bere borondatea horixe dela egiaztatzea beste moduren batean.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16- 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 15 18
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

- Ezkontzeko dagokion Erregistro Zibilean egindako eskariaren fotokopia aurkeztea.

Inprimakiarekin bat, Alkateak edo zinegotzi batek ezkontza egiteagatik egokia dan tasa ordaindu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Baimena eman baino lehen, udalak egoki jotako agiri, txosten edo azalpen osagarriak eska ditzake.

Erregistro Zibilean izapidetutako espedienteak ezkontzeko eskaria aurkeztu baino lehen heltzen bada udalera, eskaera onartzeko, espediente hura udalaren erregistro orokorrean jasota egon beharko da, gutxienez ezkontza zibila izan baino 30 egun lehenago.

Ezkontza eskaria onartu edo ukatzeko ebazpena beti jakinaraziko zaie interesdunei.

Bi eskatzaile edo gehiago egonez gero aldi berean ezkontzeko, lehentasuna udalerrian erroldatuta dagoenak izango du eta, bestela, eskaera lehenago eskatu duenak.

Eskaera ukatzen bada, hainbat arinen jakinaraziko zaio eskatzaileari, kalterik ez sortzeko.

6.-artikulua. Eskaera zuzendu eta hobetzea

Eskaerak betetzen ez baditu 5. artikuluan jasotako betekizunak, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzendu edo agindutako agiriak aurkez ditzan, adierazita hala egin ezean eskaera ezetsi egingo dela; hori guztiori urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedurarenak, 68. Artikuluan xedatutakoa betez.

7.-artikulua. Zeremoniaren ordutegiak, eguna, iraupena eta egitea

Zeremoniak gehienez ere ordu bete iraungo du, eta amaitutakoan bertaratutakoek horretarako gaitutako lokala utziko dute.

Udalak beretzat gordetzen du beti lagapena bertan behera uzteko aukera, baldin eta ezinbestean erabili behar baditu aretoak. Ebazpen hori arrazoitua izango da eta interesdunari behar besteko aurretiaz jakinaraziko zaio, beste leku egoki bat proposatuz.

Honela egingo da zeremonia zibila:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16- 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 15 18
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

- Bertaratutako guztiak nor bere lekuan jarri ondoren, alkatea edota eskuordetutako zinegotziak gonbidatuko ditu haiek zutik ipintzera eta ezkongaiak sartuko direla iragarriko du, haiek egingo baitute zeremonia.
- Berriro denak eserita, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak ekitaldiari hasiera emango dio adierazita ezkontza zibila egiteari ekingo zaiola eta ezkontideen izenak esango ditu; aurretiko espedientearen izapidetzea ere aipatuko du, eragozpenik sortu ez dela argituz.
- Jarraian, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak Kode Zibileko 66., 67. eta 68. artikulua irakurriko ditu, hain zuzen, ezkontideen eskubide eta betebeharren berdintasunari eta ezkontzak dakarzkien betebeharreiburuzkoak.
- Irakurri ostean, ezkontideak eta bertaratuak zutik daudela, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak ezkontideetako bakoitzari galdetuko dio beste ezkontidearekin ezkontzeko adostasuna ematen duen eta une horretan ezkontzen den.
- Bi erantzunak baiezkoak badira, alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak adieraziko du pertsonak horiek ezkontza zibilez elkartu direla eta beharbada ezkontza eratzunak trukatu ahal dituztela. Nahi izanez gero, ezkontideek elkar musu emanahal izango dute, ezkontza ixteko modu sinbolikoan.
- Azkenik, ezkontideek, lekukoek eta alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak, eta hurrenkera horretan, kasuan kasuko akta izenpetuko dute. Aktaren ale bat Erregistro Zibilera bidaliko da, bertan inskribatu eta familia liburua eman diezaien ezkontideei.

• 8.-artikulua. Zeremonien akta

Zeremonia kasuan kasuko aktan jasoko du hura zuzentzen duenak, eta bertan jasoko dira eguna eta ordua, zein alkateak edo haren ordezkari den zinegotziak egin duen eta eskatzaileen datu pertsonalak. Hala egindako akta zuzendu duenak, eskatzaileek eta bi lekukok izenpetuko dute.

Aktaren ale bat udalak izapidetutako administrazio espedientearen jasoko da, ondoren kasuan kasuko udal artxibategietan gordeko duena, beharrezko diren babesaketa bermeak betez, Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako 3/2018 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera.

Zeremonia bukatutakoan, ezkontideei aktaren ale bat emango zaie horrela eskatu badabe ezkontza eskarian. Beste ale bat hurrengo lanegunean bertan bidaliko da Erregistro Zibilera, agiriaren lekukotasunez edo kopia baimenduaren bidez, inskribatu dadin, Erregistro Zibileko arduradunak kalifikatu ondoren.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16- 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 15 18
 idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

9. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

Ezkontideek atondu nahi badute modu berezian ezkontza egingo den aretoa, nahiko aurretiaz jakinarazi beharko dute dena delakoa ebatz dadin, betiere lekuaren oreka eta ezaugarriak gordeta. Atontzetik sortzen direngastuak ezkontideek ordaindutako dituzte.

Udal lokalen erabiltzaileek garbitasuna eta ordena mantendu beharko dute eta ospakizunean arroza, loreak eta antzekoak botako badira ezkontzetarako aretoaren barruan zein sarreran, horren berri emango da ondoren garbitu dadin.

Ezkontza aretoaren erabiltzaileek lokala eta bertako altzariak zaindu beharko dituzte, eta gizalegez jokatu.

Lokaletan eta bertako gauzetan egindako kalteak ezkontideen erantzukizuna izango dira, eta udalak haiek konpontzea eska dezake.

Ordenantza honek jasotzen dituen lokaletan ez da inondik inora baimenik emango suziri edo antzekoak erabiltzeko, baldin eta eraikinak, udal lokalak – toki ondareko leku guztiak barne sartuta – edo bertan dauden pertsonen segurtasuna arriskuan jarri ahal dute.

10. artikulua. Argazkiak eta grabazioak

Argazkiak eta grabazioak egin ahal izango dira horretarako gaitutako aretoan ekitaldia egiten den bitartean, bai eta kanpoan ere, ekitaldia egin baino lehen eta gero, baldin eta oztopatzen ez badira ekitaldia bera, beste ezkontza, ekitaldi edo udal zerbitzuak ibiltzea edo eragiten ez badiete erabiltzen ari diren elementu, lokalei, ezta finkatutako ordutegi ere.

Azken xedapen bakarra

Ordenantza hau behin betiko onartu eta BAOean testu osoa argitaratzen denetik hamabost lanegunera jarriko da indarrean, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluari dagokionez 65.2 artikuluan ezarritako arekin batetorritik, harik eta espresuki aldatu edo baliogabetzen den arte.

Bermeon, 2019ko urriaren 9an

Alkatea

Aritz Abaroa Cantuariense



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16- 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 15 18
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J